



ATAUNgo UDALA

2002KO EKAINAREN 5EAN UDALBATZA OSOAK
EGINDAKO OHIKO BILKURA.

Ataungo Udaletxean, bi mila eta biko ekainaren bostean, 20:30ean, Udalbatza Osoa bildu zen ohiko bilkura egiteko. Batzarburu bezala Aitor Auzmendi Asurabarrena alkateak jardun zuen, eta aurrez batzarkide guztiei egin zitzaaien bertaratzeko deia.

Honako zinegotzi hauek etorri ziren: Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika, Iñaki Eskisabel Zurutuza, Santi Etxeberria Goikoetxea, Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorronsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristain.

Idazkaria: Serafin Jaka Arrizabalaga.

I.- 2002KO MARTXOAREN 13AN EGINDAKO BILKURARI DAGOKION

AKTA.- Batzarburuak bilkurari hasiera eman, eta 2002ko martxoaren 13an egindako bilkurari dagokion akta aztertu da.

Aitor Aldasorok adierazi du kontrako botua emango dutela, azkeneko bilkura egin zenetik pasa den denboragatik.

Besterik gabe, bozketa egin eta idatzita dagoen bezalaxe onartu da akta. Aitor Auzmendi, Jexux Goikoetxea, Jaione Munduate, Iñaki Eskisabel eta Santi Etxeberriak aldeko botua eman dute, eta Aitor Aldasoro, Oihana Munduate, Lourdes Etxeberria eta Joxe Mari Barandiaranek aurkakoa.

II.- PERTSONA EDADETUEN ALDEKO MANIFESTUA.-

Hona hemen, laburtubilduz, Gipuzkoako Pertsona Edadetuen Kontseiluak prestatutako Pertsona Edadetuen Aldeko Manifestuaren Printzipioak eta Zaharren Eskubideak:

“Printzipioak:

- Adinagatik bazterketatarik ez egiteko printzipioa.
- Herritartasunaren printzipioa.
- Belaunaldien arteko elkartasunaren printzipioa.



ATAUNgo UDALA

Zaharren Eskubideak:

- Duintasun eskubidea.
- Independentzia eskubidea.
- Parte hartzeko eskubidea.
- Norberaren errealizaziorako eskubidea.
- Norberaren eskubideak ezagutu eta defendatzeko eskubidea."

Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, Manifestuari bere atxikimendua ematea erabaki du.

III.- GARBIKETA ZERBITZUA LEHIAKETA BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN PLEGUA.-

2001eko azaroaren 7ko bilkuran onartutako Pleguari jarraiki, Garbiketa Zerbitzua kontratatzeke lehiaketa egin ondoren, berori hutsik geratu zela esan du alkateak.

Garbiketa zerbitzuak zeregin berriak barne hartzen dituela kontuan izanik, eta ordu kopurua gehitzearen eta KPIri dagokion igoeraren ondorioz, lehiaketaren zenbatekoa, 31.335 eurotan (+ BEZ) ezarritakoa, berraztertu ondoren, berriro ere Garbiketa Zerbitzua kontratatzeke lehiaketa egitea proposatu da. Zerbitzu hau bi urterako adjudikatuko da, nahiz eta lau urtera bitarte luza daitekeen.

Hori horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du:

1.- Baldintza Pleguak onartzea. Hona hemen beraien edukia:

"GARBIKETA-ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO ATAUNGO UDALAK KONBOKATURIKO LEHIAKETA ERAENDUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ETA AGINDU TEKNIKOEN PLEGUAK.

LEHENA.- KONTRATUAREN XEDEA

Udaletxea, Joxemiel Barandiaran Eskola, Zelaietan kokaturik dauden Liburutegia eta erabilpen anitzeko aretoa, San Martin, San Gregorio eta Aia auzoetako Kontsultategi eta komunak, San Gregorio elkarguneko lokala, eta San Gregorioko frontoia eta aldageletan garbiketa-zerbitzuak kontratatzea da lehiaketa honen xedea.

Adjudikazio-prozedura irekia izango da, lehiaketa bidez burutuko delarik.



ATAUNgo UDALA

Baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Agindu Teknikoen Plegu honetan, hala nola, lehiatzaile-adjudikatariak aurkez dezakeen proiektuan ezarritakoarekin bat etorritur burutuko da zerbitzua.

BIGARRENA.- LEGE-JAURBIDEA

Baldintza-Plegu honetan aurrikusi gabeko kasuetan, Administrazio Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen 2/2000 Errege-Dekretu Legislatiboan eta Udal Administrazioaren kontratazio alorrean indarrean dauden gainerako legezko xedapenetan ezarritakora joko da.

HIRUGARRENA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Aipatutako Testu Bateratuko 20. artikuluan eskatutako baldintza orokorrean gain, kontratuaren xedearrekin zerikusi zuzena eduki dezan iharduera garatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira lehiatzaileak. Gainera, kontratua zuzen eta egoki burutzeko behar adina langile eta materiala eduki beharko dituzte euren esku.

LAUGARRENA.- LEHIAKETA SARIA

Lehiaketa-sari bezala, gehienez ere, honako zenbateko hau ezartzen da: urteko, 31.335 euro (+ BEZ).

Lehia-saria betetzera edo, eskainitako lehia-sari ezberdinak zehaztuz, beherantz hobeagotzera mugatu ahal izango dira lehiatzaileak.

Halaber, lizitatzailerak, Plegu honetan aurreikusi gabe eta hitzarmenaren iraupenean eskatu daitezkeen bestelako garbiketa lanek zein izango duten orduko/zenbatekoa adierazi beharko dute. Eskainitako prezioan ez da BEZ sartuko. Ezarritako diru-kopurua KPIren bilakaeraren arabera eguneratuko da, behin zerbitzuaren adjudikaziotik aurreneko urtea iragandakoan.

BOSTGARRENA.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupen aldia bi urtekoa izango da. Edozein modura, urteka, aldatu eta luzatu ahal izango da, gehienez ere 4 urte arte, alderdietakoren batek, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenez, salatzen ez badu.

SEIGARRENA.- AKURAPENAREN MODUA

Pleguetan ezarritako erizpideak kontuan harturik, eskainitako prezioari bakarrik begiratu gabe eta hutsik uzteko Administrazioaren eskubidearen kalterik gabe, orokorrean abantailak gehien eskaintzen dituen proposamena egin dezan lehiatzaileari adjudikatuko zaio garbiketa-zerbitzuaren burutzapena.

ZAZPIGARRENA.- PROPOSAMENAK ETA AGIRIAK

Lehiaketan parte hartzeko eskatutako proposamen eta agiriak Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontaturik hogeitau egun naturaleko epean.



ATAUNgo UDALA

Beranduago aurkeztutako proposamenik ez da onartuko, nahiz eta epea bukatu aurretik Postetxean entregatu zirela egiaztatu. Proposamenak onartu ahal izateko, eskaintzaren igorpen-dataren ziurtagiria bidali beharko da Ataungo Udaletxera, telex edo telegrama bidez, proposamena postaz igorritako egun berean. Lehiaketan parte hartzeko idazkiak, lakratu eta prezintatu ahal izango diren bi sobre itxietan aurkeztu beharko dituzte Lehiatzaileek.

a) Lehenengo sobreak honako titulu hau eramango du "Garbiketa-Zerbitzuak adjudikatzeko lehiaketan parte hartzeko proposamena". Azpтитulu, berriz, honako hau: "Erreferentziak", eta honen barne, jarraian adierazitako agiriak sartuko dira:

1. Proposamen-egileak izenpetutako txostena, honako datu hauekin: enpresari buruzko erreferentzi tekniko eta ekonomikoak; egun burutzen dituen garbiketa-zerbitzuen zehaztapena, eskura daukan giza-baliabideen deskribapena eta antolakuntzari buruzko eskema.

2. Kontratuaren xede den zerbitzua nola burutuko duen azaltzen duen proiektua: ordutegiak, langile-kopurua, materialeak eta garbiketa-mota.

3. Proposamena izenpetzen duenaren Nortasun Agiri Nazionala.

4. Lehiaketara beste baten izenean edo pertsona juridiko baten ordezkotzan aurkeztuz gero, behar bezala askietsiriko eskuordetza-idazkia edo ordezkapena eta nortasuna egiazta daitezen agiriak.

5. Lehiatzailea elkarre bat izanez gero, Merkataritza Erregistroan inskribaturiko eratze edo aldaketa idazkia.

6. Lehiatzaileak, bere erantzukizunpean, indarrean dagoen legedian adierazitako ezgaitasun eta bateraezintasun arazorik ez daukala hitz ematen duen egiaztagiria.

7. Zerga-betebeharrei eta Gizarte-Segurantzari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak, dagokion Administrazio-Erakundeek luzatutakoak.

b) Bigarren sobreak aurrenekoaren titulu bera eramango du, eta azpтитulu bezala, honako hau: "Eskaintza Ekonomikoa". Honen barne, eta Plegu honen bukaeran dihoan ereduarekin bat etorriz, eskaintza ekonomikoa zehaztuko den proposamena sartuko da.

ZORTZIGARRENA.- BEHIN-BEHINGO ETA BEHIN-BETIKO BERMEAK

Behin-behingo bermea dispentsatua geratzen da, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen 35 eta 203 artikuluetan xedatutakoaren babespean.

Akurapenaren adjudikatariak behin-betiko bermea jarri beharko du, adjudikazioaren zenbatekoaren % 4eko kopurua, urteko balioespena kontuan harturik, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen 36. artikuluan onartutako modutan.



ATAUNgo UDALA

BEDERATZIGARRENA.- DOKUMENTUAK KALIFIKATU ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta gero, Kontratazio-Mahaiak, alkateak edo honen ordezeko zinegotziak, eta udaleko idazkariak osatuko dutelarik, ezarritako epean eta moduan jasotako dokumentazioa ("A" sobrea) kalifikatzeari ekingo dio. Agiri horietan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango da lehiatzaileak aipatu akatsak zuzen ditzan.

"B" sobrean aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko di-ra, proposamenak aurkezteko epea bukatu eta **laugarren lane-gunean, 9:00etan**. Postaz igorritakoen kasuan, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa ezarriko da.

Gero, eta dagokion txosten teknikoak aztertu ondoren, hala balegokio, Kontratazio-Mahaiak kontratuaren adjudikazio-proposamena aurkeztuko dio Kontratazio-Sailari.

Udaleko sail aginpidedunak, bere erizpideari jarraiki, zeina zuhurtziarakoa izango baita, eta eskaintza ekonomikoari bakarrik begiratu gabe, abantailak gehien eskaini dezan proposamenari adjudikatuko dio lehiaketa. Edozein modura, hutsik geratu ahal izango da.

Lehiaketa honen ezaugarrietariko bat den zuhurtziarako ahalmenaz baliatuz, Udalak honako erizpide erabakitzaile hauek baloratuko ditu, beste zenbaiten artean:

- Eskaintza ekonomikoa.
- Teknikoki antzeko edo pareko izan daitezken zerbitzuetan egiaztaturiko esperientzia.
- Zerbitzuaren burutzapenerako eskura edukiko diren giza-baliabideak (eta beraien bizilekua).
- Proiektoa: Lan-egitaraua.

HAMARGARRENA.- KONTRATUA IZENPETZEA

Behin-betiko adjudikazioa jakin erazi ondoren, jakinarazpen-egunetik kontaturik hogeita hamar eguneko epean, agiri administratibo batean kontratua izenpetzeari ekin beharko dio adjudikatariak; horretarako beharrezko baldintza izanik aurretik behin-betiko bermea jartzea.

HAMAIKAGARRENA.- GASTU ETA ZERGAK

Lehiaketa honetan loturik eta kontratua izenpetzearekin eta betetzearekin erlazionaturik sor daitezkeen iragarki, zerga eta bestelako gastuak, BEZ barne, adjudikatariaren kontura joango dira.

HAMABIGARRENA.- ORDAINTZEKO MODUA

Lanorduak eta burututako zerbitzuak jasoko diren faktura bat aurkeztuko da hileroko; eta ordainketak faktura horren bitartez egindo dira.



ATAUNgo UDALA

Fondoen Gordesaintzak fakturen zenbatekoaren ordainketa egiaztatuko du, behin Alkatetzak onartutakoan.

HAMAHIRUGARRENA.- KONTRATU-ADJUDIKATARIAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK

1.- Zenbatekoa jasotzeko eskubidea, ondorengo arauetara egokituko da:

Errealitatean prestatu den zerbitzua, aurrez itundutako prezioen arabera ordainduko zaio adjudikatariari, proiektuari eta proiektuak izan ditzakeen behar bezala baimendutako aldaketei loturik.

Adjudikatariak aurkeztutako Proiektuan aurrakusi ez diren zerbitzu eta prezioak sartu beharra sortuko balitz, aipatu prezioak dokumentu erantsi batean sartuko lirateke.

2.- Kontratu-adjudikatariarentzat obligazio bereziak izango dira:

a) Fidantzaren behin-betiko inposizioa eta osaketa, hala badagokio, ezarritako epe barruan gauzatzea.

b) Kontratua formalizatzea.

c) Zerbitzua aurkeztutako proiektura, pleguetara eta Udal-ordezkarriaren aginduetara zehatz-mehatz loturik, eta pertsonalki, burutzea, ezin izango delarik kontratua, osoa edo zatiren bat, hirugarren baten eskutan utzi Administrazioaren baimen espresurik gabe.

d) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sor daitezkeen gastu guztiak ordaintzea.

e) Lizitazioak eta kontratuak ekar ditzaketen tributu estatal eta lokal guztiak (tasak, kontribuzioak eta zergak) ordaintzea.

f) Ondorengo xedapenetan ezarritakoa bere konturako betetzea: Langileen Estatutua, Gizarte-Segurantzako Lege Orokorra, Laneko Seguritate eta Higienarako Ordenantza Orokorra, enpresariaren iharduketa esparruari dagokion sektorean aplikagarri diren Lan Ordenantzak eta Hitzarmen Kolektiboak eta, orohar, lan harremanetarako, Gizarte-Segurantzarako eta laneko Seguritate eta Higienarako indarrean dauden xedapen legal guztiak, nola estatu mailakoak hala estatu artekoak.

g) Zerbitzuaren buruketak eskatzen dituen lanen ondorioz hirugarren bati sor dakizkiokeen kalte guztiak ordaintzea, hala nola, adjudikatariak bereganatu dituen obligazioak ez betetzetik sor daitezkeenak ere.

HAMALAU GARRENA.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDE ETA OBLIGAZIOAK.

1.- Zerbitzu-ikuskaritza Administrazioak izenda dezakeen ordezkaritari dagokio, zeinak zerbitzua era efikazean eta normalean burutzeko behar diren instrukzio guztiak aginduko dituen. Halere, Alkateak berak pertsonalki, edo berak



ATAUNgo UDALA

delegatutakoaren batek, zerbitzuak ikuskatu ahal izango ditu egoki deritzon.

2.- Administrazioak inongo eragozpenik gabe agindu dezake ematen ari den zerbitzuan aldaketaren bat egitea. Aldaketa horiek, beste batzuren artean, zerbitzuari dagokion kalitate, kantitate, denbora eta lekuari buruzkoak izango dira.

3.- Zerbitzua jasotzeko eskubidearen arabera, zerbitzuko saria ordaintzea da Udalaren obligazioa.

PROPOSAMENA EGITEKO EREDUA

.....Jaun/Andreak
.....n bizi denak, N.A.N
zkia.....duenak, eta.....
.....helbidea duenak, bere izenean
(edo.....ren ordezko
bezala) honako hau jasoarazten du:

1.- Probintziakogarren Aldizkari Ofizialean agertutako iragarkiaren arabera Ataungo Udaletxea, Joxemiel Barandiaran Eskola, Zelaietan kokaturik dauden Liburutegia eta erabilpen anitzeko aretoa, San Martin, San Gregorio eta Aia auzoetako Kontsultategi eta komunak, San Gregorio elkarguneko lokala, eta San Gregorioko frontoia eta aldageletan Garbiketa-Zerbitzua lehiaketa bidez adjudikatzeko aurkezten duen eskaintza onartua izan dadila.

2.- Aipatu lanak.....pezetan egiteko konpromezua hartzen duela. Diru-kopuru horri beste honako hau gehitu behar zaio, B.E.Z. dela eta:.....

Eta proiektuan aurreikusten ez diren lanetarako honako orduko/zenbateko hau proposatzen duela:pezeta (+B.E.Z.).

3.- Administrazio Publikoetako Akurapen-Legeko 20.atalean aurrikusitako ezintasun eta elkartezintasun arazorik ez duela agertzen du.

4.- Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan eskatzen diren beste dokumentuak ere aurkezten dituela.

5.- Erabat onartzen dituela bai lehiaketa honetako Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguak bai eta lehiaketa bezala dituen eta emakida emango balitzaioke izango lituzken betebeharrak ere.

6.- Eraberean, Industri Nazionala eta Lanerako Industriaren Babespen Legeek aurriztuz dutena erabat beteko duela hitz ematen du, Gizarte Asegurantza eta Aurrikuspen eta Lan-Arauei buruzkoak barne.

.....2002ko.....k.....

LIZITATZAILEA



ATAUNgo UDALA

AGINDU TEKNIKOAK

Udaletxea, Joxemiel Barandiaran Eskola, Zelaietan kokaturik dauden Liburutegia eta erabilpen anitzeko aretoa, San Martin, San Gregorio eta Aia auzoetako Kontsultategi eta komunak, San Gregorio elkarguneko lokala, eta San Gregorioko frontoia eta aldageletan garbiketa-zerbitzua adjudikatzeari ekin behar dio Ataungo Udalak.

Lehiatzaileak, eraikin edo areto bakoitzean prestatuko den garbiketa-zerbitzua, aldizkotasun eta iraupena, erabiliko diren materialak eta interesgarri izan daitezkeen aparteko aipamenak adieraziz Lan-Egitaraua edo Proiektua aurkeztu beharko du.

- *Udaletxea.*

Eraikina: solairu bakoitzeko 290 m², behe solairua, bi pisu eta ganbara.

Zerbitzua egunero prestatuko da (astelehenetik-ostiralera)

Lanordutegia: 14:30etatik aurrera. (Urtean 390 ordu)

- *Joxemiel Barandiaran Eskola.*

Eraikina: solairu bakoitzeko 550 m² inguru; behe solairua eta bi pisu.

Zerbitzua, irailetik ekainerarte, egunero prestatuko da (astelehenetik-ostiralera).

Lanordutegia: 16:00etatik aurrera. (Urtean 860 ordu)

- *Liburutegia eta San Martingo komunak.*

Zerbitzua egunero prestatuko da (astelehenetik-ostiralera)

Lanordutegia: 17ak aurretik. (Urtean 260 ordu)

- **Erabilera anitzeko aretoa.**

Zerbitzua astean behin, irailetik ekainerarte. (Urtean 43 ordu)

- *San Martingo Mediku Kontsulategia.*

Zerbitzua egunero prestatuko da (astelehenetik-ostiralera)

Lanordutegia: 15etatik aurrera. (Urtean 260 ordu)

- *San Gregorioko Mediku Kontsulategia.*

Zerbitzua egunero prestatuko da (astelehenetik-ostiralera)

Lanordutegia: 15etatik aurrera. (Urtean 260 ordu)

- *Aiako Kontsultategia.*

Zerbitzua astelehenero prestatuko da. (Urtean 52 ordu)

- *San Gregorio elkarguneko lokala, Frontoia, aldagelak eta San gregorioko komunak.*

Astean behin. (Urtean 52 + 78 ordu)

- *Aiako komunak.*

Hamabost egunean behin. (Urtean 52 ordu)

* Langileak

Adjudikazio-hartzaileak Lanaren Lege Babesleek xedatutakoa bete beharko du, aurreikuspenari eta gizarte-segurantzari buruzko puntuak barne. Betebehar hori, kontratazio mota hauen gainean dagoen legedira zabal daiteke.



ATAUNgo UDALA

* Aldizkako zerbitzuak

Urtean behin gelatako kristalak eta ikastetxeko alfonbrak garbitu eta gela guztiak desinfektatu.

Gela guztietako toallak eta gortinak garbitu.

* Materiala

Eskainitako zerbitzua emateko behar den materiala adjudikazio-hartzaileak bere kontura jarri beharko du. Bainugela eta komunetan aldatu beharreko produktuak ere (komuneko papera, toallak eta eskuko xaboia) puntu honen barne sartzen dira."

2.- Lehiaketa konbokatzea. Horretarako, dagozkion iragarkiak jarriko dira iragarki-oholean, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitara emango dira.

IV.- KULTURA ETA KIROL ALORREKO JARDUERAK AURRERA ERAMATEKO EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO PROPOSAMENA.-

Herriko elkarteek aurrera eramatea aurreikusita dauzkaten jardueretarako eman beharreko dirulaguntzei begira Kultura, Kirola eta Turismo Batzordeak egindako proposamena zein den jakinarazten da. Proposamen horrek honetan datza:

2002ko ELKARTEEN EKINTZEN GARAPENERAKO LAGUNTZAK

	Defizita	Ptu.	%	Oinarria	Laguntza	
EATE ABESBATZA						
Hitzarmena				600	600	
DANTZA TALDEA						
Hitzarmena				750	750	
ATAUN KIROL ELKARTEA						
Areto futbola	55-80	12.000	6,6	0,63	7.560	3.924
Ibilaldi Neurtua motza		900	7,3	0,87	783	406
Pelota (federatuak).		2.500	7,1	0,86	2.150	1.116
Pelota txapelketak	35-60	450	7,1	0,46	207	107
HAITZARRI ELKARTEA						
Artzai Eguna		722	6,1	0,82	592	307
Umeen eguna		312	5,9	0,81	253	131
Hitzaldia		120	5,7	0,79	95	49



ATAUNgo UDALA

OARGI-TROSKAETA K.E.

Negu Festa	571	6	0,81	463	240
Mendi irteerak	361	6,6	0,83	300	156
Bertso Afaria	391	5,6	0,78	305	158
Mus eta Eskoba Txap.	182	5,4	0,77	140	73
Olentzeroren Etorrera	151	6,1	0,82	124	64
Abentura astea	484	5,9	0,81	392	204

ATSEDEN TOKI ELKART.

Jokuak	1.166	6,7	0,83	968	502
Santixal Ibilaldia/Santo Tomas	122	6,9	0,84	102	53
Ibilaldi neurtua	145	6,6	0,83	120	62

J.M. BARANDIARAN ESKOLA

Igeriketa kanpaina	35-60	1.770	6,4	0,42	743	386
Kirol estraeskolarra	55-80	2.722	7,3	0,67	1.824	947
Eguzki Berri aldizkaria	35-60	3.090	7	0,45	1.391	722
Otsoa Irratia		1.070	6,6	0,83	888	461

ARTADI K.E.

Pala txapelketa	120	6,1	0,82	98	51
Bideo emanaldiak	72	6,3	0,82	59	31

Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, egindako proposamena onartzea erabaki du.

V.- 2002. URTEKO JAIETARAKO DIRUA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.-

Jarraian, Santi Etxeberriak, Kultura, Kirol eta Turismo zinegotziak, 2002. urteko herriko jaietarako aurrekontuaren edukia proposatzen du.

HERRIKO JAIK 2002

HERRIKO JAIK	5.688.540	34.188,81 €
Hiru Auzoetako Jaiak	4.500.000	27.045,54 €
%ko 55 hiru zatitan eta %ko 45 biztanleen arabera.		
S.Martin (1.008): 825.000+1.316.250 (%65)	2.141.250	
S.Gregorio (401): 825.000+ 506.250 (%25)	1.331.250	
Aia (135): 825.000+202.500 (%10)	1.027.500	
Eskenatoki montaketa eta garraioak	350.000	2.103,54 €



ATAUNgo DALA

Bat eta Beste

123.540 742,50 €

San Isidro Eguna

275.000 1.652,78 €

San Juan Eguna

250.000 1.502,53 €

Arrondo	(%ko 23)	57.500
Ergoiena	(%ko 23)	57.500
San Martin	(%ko 18)	45.000
San Gregorio	(%ko 18)	45.000
Aia	(%ko 18)	45.000

Arantzamendiko erromeria

30.000 180,30 €

Garaipen Eguna eta S. Gregorio Eguna

160.000 961,62 €

%ko 55 hiru zatitan eta %ko 45 biztanleen arabera.

S.M. (1.008)	44.000 + 51.120	95.120
S.G. (401)	44.000 + 20.880	64.880

Hori horrela, Udalbatzak aipatu proposamena onartzea erabaki du.

VI.- BIZTANLEEN UDAL-ERROLDA BERRAZTERTZEA.- Ataungo biztanleen udal-errola berraztertzeke lanen berri eman da. 2002ko urtarrilaren 1-a erreferentzia-data bezala hartuta, Ataunek 1.535 biztanle ditu (797 gizonezko eta 738 emakumezko). Hori horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du: udal-errolaren berrazterketa eginda dagoen bezala onartzea.

VII.- 2001. EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.- Ondoren, 2001. ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzeko Alkatetzaren Dekretu bidez hartutako erabakiaren berri eman du alkate jaunak. Hona hemen bere edukia:

"ALKATETZAREN ERABAKIA.-

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Udaleko 2001eko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan, eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT



ATAUNgo UDALA

Lehena.- 2001eko Udaleko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2001-12-31n:	104.233.124	104.233.124
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2001-12-31n:		32.031.223
Aurrekontuko zordunak:	31.978.088	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	53.135	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2001-12-31n:		34.051.152
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	29.595.841	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	4.455.311	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	
4.- Altxortegiko-gerakin gordina (1+2-3):		102.213.195
5.- Saldo kobragaitzak:		5.328.048
6.- Altxortegi-gerakin likidoa (4-5):		96.885.147
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina:		
8.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina (6-7):		96.885.147
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		66.771.743
10.-Aurreko ekitald.likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	3.041.608	
11.- Doiketak, altxortegi-gerakinaren bidez finantzatutako obligaz:	21.137.868	
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		90.951.219

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditentearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, eta Foru Dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzariari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran." Besterik gabe, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

VIII.- KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA: 2001. URTEKO

KREDITUAK SARTZEA. - 2001. urteko aurrekontuaren likidazioari dagokionez, alkatetzaren dekretu bidez hartutako erabakiaren berri eman du alkateak. Erabaki hori gai honi buruzkoa da: Kredituak aldatzeko 1 zk.ko espedientea: 2001. urteko kredituak sartzea. Esan beharrik ez dago, horrek 2002ko aurrekontuan eragingo du.

"ALKATEAREN ERABAKIA.-

Aurreko urteko Aurrekontuko kreditu gerakinak txertatu izanaren ondorioz Udalaren 2002ko Aurrekontuan izapidetutako kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu.

Udal-bitartekoen Antolaketa eta Kudeaketa Batzorde buruak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena eta espedientean egindako gainerako iharduketak ere aztertu ditugu.



ATAUNgo UDALA

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak 32.6. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak 38.9. artikuluan kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenik.- Aurreko ekitaldiko Aurrekontuko kreditu gerakinak Udalaren 2002ko Aurrekontuan txertatu izanaren ondorioz kredituak aldatzeko 1 zk.ko espedientea onestea, aipatu txertaketak hartzen dituen kapituluen laburpen honen arabera:

GASTUAK-GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	Eurok
VI	INBERTSIO ERREALAK	667.187,42
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		667.187,42

SARRERAK-FINANTZAKETA

Kap.	Izena	Eurok
VII	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	237.753,71
VIII	FINANTZA AKTIBOAK (Diruzaintza gerakina)	429.433,71
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		667.187,42

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, gastuetan zein sarreretan."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

IX.- GOIEKIREN 2001. EKITALDIKO EMAITZAREN EZARPEN-PROPOSAMENA ETA MEMORIA, BALANTZEA ETA GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA AZTERTU ETA ONARTZEA.-

Ekainaren 15ean egin behar den Batzar Orokor Arruntean onar daitezten, Goierriko Ekimena, S.A. Elkartearen Administrazio-Batzordeak aurkeztutako agiriak aztertu dira. Agiri horiek urteko kontuei dagozkienak dira. Besterik gabe, Alkatetzak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:



ATAUNgo UDALA

1.- 2001. ekitaldiko emaitzaren ezarpen-proposamena eta Memoria, Balantzea eta Galera eta Irabazien kontua, aurkeztutako agirietan jasota dagoen bezala onartzea.

2.- Aitor Auzmendi alkateari, edota berorrek bere ordezkotza eman diezaionari, Goierriko Ekimena, S.A. Elkartearen Batzar Orokor Arruntean Ataungo Udalaren ordezkari bezala parte hartzeko baimena ematea.

X.- SAN MARTINGO HIRIGUNE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO BIDEA EGITEKO OBREI DAGOZKIEN 4 ETA 5 ZK.KO EGIAZTAPENAK.

Hona hemen, 4 eta 5 zk.ko egiaztapenei dagozkien diru-zenbatekoak hurrenez hurren: BERROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO, ETA EHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO. Egiaztapen horiek obra-zuzendaritzak idatzi ditu Construcciones Donosti, S.A.ren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

XI.- UHOLDEEN AURKA BABESTEKO ETA AGAUNTZA ERREKA SAN MARTIN PAREAN BIDERATZEKO PROIEKTUAREKIN ERLAZIONATURIK EGITEN ARI DIREN OBREI DAGOZKIEN 2-B, 3-B ETA 4-B EGIAZTAPENAK.

Hona hemen, 2-B, 3-B eta 4-B egiaztapenei dagozkien diru-zenbatekoak hurrenez hurren: ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA HAMABOST ZENTIMO, EHUN ETA SEI MILA HOGEITA LAU EURO ETA LAUROGEITA BI ZENTIMO, ETA HIRU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO. Egiaztapen horiek obra-zuzendaritzak idatzi du Ubiri, S.L.ren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

XII.- "ATSEDEN TOKI" ERRETIRATUEN ELKARTEKO TABERNAREN USTIAPENA ADJUDIKATZEARI BURUZ.

Erretiratuen elkarteko tabernaren ustiapena kontratatzeko egindako gestioen berri eman du batzarburuak. Azkenik, tabernaren ustiapena Maria Jesus Jaka Berastegiri adjudikatu zaio. Urtarrilaren hasieratik taberna itxita egon da, aurreko arduradunak zerbitzu hori emateari utzi ziolako. Dena den, maiatzaren 17az geroztik martxan dago berriro ere.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



ATAUNgo UDALA

XIII.- ALAKO ITURBURUA: SARBIDE ESKUBIDEA BERRESKURATZEKO AKZIO JUDIZIALAK.-

Aiztondo baserriko titularren kontra bidezko diren akzio judizialak aurrera eramateko hartutako erabakiaren berri eman du batzarburuak. Izan ere, Paskual Iturri izeneko iturri publikoa hornitzen duten Ala iturburuko ur-hodiak Aiztondoko titularren lurzati batetik iragaten direnez eta, horrez gain, erregistro kutxeta bat ere beraien jabetzako lursailean dagoenez, ur-hodi eta erregistro kutxeta horietarako sarbide eskubidea berreskuratu nahi da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

XIV.- BATASUNAREN ILEGALIZAZIOAREN KONTRAKO MOZIOA.-

Jarraian, Batasunaren honako mozio hau irakurri du Aitor Aldasorok:

"BATASUNAREN ILEGALIZAZIOAREN AURKAKO MOZIOA

"Azken hilabeteetan, maiz agertzen ari da Espainiako Gobernuaren bozeramaileen ahotik, Batasuna legez kanpo uzteko asmoa. Ez dira berriak gure herrrian horrelako urrats errepresiboak; gerra zikinari, torturei, heriotza zigorra extrajudizialari, atxilotetei eta kartzelaratzeari ezezik, oldartze sasijudizialari ere bidea eman zaio azkenaldi honetan, legez mozorrotutako errepresioa alegia.

Estatu espainiarraren izaera errepresibo eta faxista, askotan ageri da eta guztiok, gure herrietan, gertutik jabetzeko aukera izan dugu, tamalez. Herriaren nahiari, askatasuna eta bakearen nahiari, Estatuak gogor erantzuten diote historikoki, errepresio politikaren bidez, Euskal Herriaren hitza eta erabakia ekidin ahal izateko, azken finean, demokraziari beldurra diotelako.

Errepresioa etengabekoa eta iraunkorra izanik, batzuetan areagotu egiten da, hain zuzen Estatuak beraien jarrera kolokan ikusten dutenean edota Euskal Herriak bere eskubide politikoak ozenki aldarrikatzen ditutenean, aldaketa politikotik hurbil egonez. Horrelaxe, Franco hil zorian zegoela, Estatu espainiarrak errepresio gordinari ekin zion, Euskal Herrian salbuespen-egoera ezarri. Hil eta gero, sortutako erregimen birmoldatu honetan, lege eta Tribunal berezi ugari ezagutu ditugu, soilik euskal heritarron borrokari aurre egiteko asmoz.

Oraingo honetan, Euskal Herriari inposatutako marko juridiko-politikoak agortu denean, gehiagorik ematen ez duenean eta gizartearen gehiengo zabal batek argi eta garbi autodeterminazioaren alde jotzen duenean, Espainia, gure



ATAUNgo UDALA

eskubide zibil eta politikoak aitortu beharrean, berriro ere, jauzi errepresibo bat garatzen ari da. Euskal gizarte erakundeak, elkarteak eta erakunde politiko ezberdinak legez kanpo utziaz eta euren kideak kartzeleratzearekin batera, 200.000 euskal herritarron ordezkari politikoak ezabatu nahi dute, Batasunaren ilegalizazioaren bitartez. Tamainako erasoak, berriro ere, Euskal Herria osoari zuzentzen zaio eta oraindik ere, gizartearen haustura bortitz hau eraginez, egon daitezkeen ondorio instituzional, politiko eta sozialak, neurtezinak dira.

Batasuna ilegalizatzeko, Espainiako Gobernuaren egitasmo honen aurrean, gizartearen kezka eta larritasuna egunero azaltzen ari dira, eragile ezberdinek jarrera plazaratuz. Gizarteak ere, beraz, euskal erakundeei eta ordezkari politikoei jarrera agertzea eskatzen die. Honenbestez, (legebiltzarrek, udalak, biltzar nagusiak) hartzen ditu ondoko

ebazpenak :

- 1) Indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturalen berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela. Beraz, aukera politikoan aniztasuna errespetatu behar da.
- 2) Ez Batasuna ezta inolako indar politikorik ere, ezin direla ilegalizatuak eta jarduera politikotik alboratuak izan, Euskal Herriaren demokrazia eta euskal herritarron eskubide zibil eta politikoak lortzeari ekiten diotenak ezabatuz, alderdi batzuen jokaeraren moldaketa dela medio.
- 3) Euskal Herriko gainerako antolakunde politikoekin berdintasunean parekatuz, Batasunaren partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko, beharrezko ekintza guztiak gauza ditzan.
- 4) Mozio-(Legez besteko) proposamen hau, ondoko pertsonen helaraziko zaie: Botere Judizialaren Independentziarako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); Adierazpen Askatasunerako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); eta Europako Giza-Eskubideen Epaimahaiari."

Mozioaren sarreran jasotako zenbait ideiekin ados ez egon arren, oinarrian konforme daudela adierazi du Aitor Auzmendik; izan ere, ideiak demokratikoki defendatzeko eskubidea aldarrikatzen baita. Horregatik, bada, Batasuna ilegalizatzea helburu duen proiektuaren kontra daude, eta mozioan proposatutako lau puntuak onartzeko prest.



ATAUNgo UDALA

Hori horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du:

- 1) Indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturalean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela. Beraz, aukera politikoan aniztasuna errespetatu behar da.
- 2) Ez Batasuna ezta inolako indar politikorik ere, ezin direla ilegalizatuak eta jarduera politikotik alboratuak izan, Euskal Herriaren demokrazia eta euskal herritarren eskubide zibil eta politikoak lortzeari ekiten diotenak ezabatuz, alderdi batzuen jokaeraren moldaketa dela medio.
- 3) Euskal Herriko gainerako antolakunde politikoekin berdintasunean parekatuz, Batasunaren partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko, beharrezko ekintza guztiak gauza ditzan.
- 4) Mozio-(Legez besteko) proposamen hau, ondoko pertsonen helaraziko zaie: Botere Judizialaren Independentziarako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); Adierazpen Askatasunerako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); eta Europako Giza-Eskubideen Epaimahaiari.

XV.- DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO ETA EUSKAL GIZARTEAREN ANIZTASUNA ERRESPETATZEKO ADIERAZPEN ZIBIKOA.-

EUDEL-en Zuzendaritza Batzordeak onartutako adierazpen zibikoa aztertu eta eztabaidatu da. Hona hemen, agiri horren edukia:

"DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO ETA EUSKAL GIZARTEAREN ANIZTASUNA ERRESPETATZEKO ADIERAZPEN ZIBIKOA

"Demokrazia eta hiritarrak inon estu-estuki elkarrekin bizi badira, Udaletxeetan gertatzen da halakoa; horrez gain, Udaletxeetan ere hiritarren parte hartzeko bidezko eskaera beste inon baino zuzenago hartzen da aintzat. Beraz, Udaletxeak sistema demokratikoaren eraikin osoa sostengatzen duten oinarritzko zutabeak dira. Udaletxeen demokraziaren kalitatea degradatuz gero, sistema osoak horren eragina jasoko du.

Alkate eta Zinegotziek, udalerrri bakoitzaren herri-borondatearen legezko ordezkariak izateaz gain, guztion onuraren alde jarritako hiritarren balore zintzoenak adierazten dituzte. Haien hiritarren ongizatearen alde aritzeko kasurik gehienetan sakrifizio handiak egin behar izan dituzte, bai pertsona, bai familia bai lanbide aldetik. Zentzu horretan, gizalege altruista eta herriaren eta herrirako gobernua den demokraziaren balorerik jatorrenetarikoen adierazgarriak dira.



ATAUNgo UDALA

Hori dela eta, udal arloko eguneroko kezkez gaindi, hiritar askoren egoera larriak, horien artean ETaren ekintza terroristek mehatxatu, kolpatu eta eraildako geure kideenak -batez ere Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularrekoei dagokienez-, eta ideia politiko demokratikoen defentsarako adierazpen-askatasunak jasandako erasoek, demokrazia eta askatasunaren aldeko erantzun irmo eta solidarioa eskatzen digute, baita euskal gizartearen aniztasunarekiko begirunearen aldekoa ere.

Errealitate honetaz jabetuz, joan den otsailaren 22an Ajuria-Enean izandako Alderdi Politiko eta Erakunde Publikoen ordezkarien arteko bileran, udal esparruan demokrazia eta askatasunaren defentsarako konpromisoen garapena geure erakunde honen esku utzi izan zen, baita aniztasunarekiko begirune eta mehatxatutako pertsonetikiko defentsa eta elkartasun mailako ekimenak ere, ahalik eta inplikazio politiko eta sozial handiena bilatuz. Hori guztia horretarako propio sortutako Segurtasun-Batzordeak -bertan Alderdi Politikoek ere parte hartuz- bultzatzen diharduen erabakiekin koordinaturik.

Une honetako larritasunaz jabeturik, geure Udaletxe guztietan udal-demokraziarekin hartutako konpromisoa finkotasunez berritzu behar dugulakoan gaude, gauza bera eginez Alkate, Zinegotzi eta mehatxatutako pertsonen askatasun, osotasun eta segurtasunei nahiz terrorismoaren biktima guztiei dagokienez.

Hori dela eta, adierazpen hau izenpetu dugun euskal alderdi politiko eta udal ordezkariok jendaurrean berretsi nahi dugu nork bere erantzukizun-eremuan lan egingo dugula Demokrazia eta Askatasuna eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatu eta defendarazteko. Egin ere, ondoko printzipioen arabera egingo dugu.

Printzipioak

- 1.- Gizon-emakumeen oinarritzko eskubideak errespetatu eta defendatzea da herritarren eta Herrien antolamendu eta bizikidetzarako oinarria.
- 2.- Politikoki justifika ezinak dira, bai eta etikoki gaitzesgarriak ere, pertsonen hilketa helburu duten indarkeria ekintzak.
- 3.- Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala berretsi egiten dugu, Bizitzarako Eskubidea horien arteko aurrenekoa izanik, eskubide hori agertu ezean ezin baita bestelakorik gauzatu. Adierazpen horri eutsiz, ezin da inor torturatu, txarto tratatu, iraindu edo mehatxatu, ez eta jazarri edo eraso ere, dituen ideiak direla-eta edo ideia horiek jendaurrean demokratikoki ordezkatu eta defendatzearren.



ATAUNgo UDALA

Horregatik, bizitza askatasun eta demokraziaren aurka- eta hortaz, giza-eskubide guztien aurka- doazen ETaren ekintza terroristak gaitzetsi egiten ditugu.

- 4.- Euskal gizartean dagoen ideia, egitasmo eta sentimendu aniztasuna aberasgarri da kultura, politika nahiz gizartearentzat. Horrenbestez, babestu eta errespetatu egin behar da, eta, horretarako, gizarte hori osatzen duten kide guztien askatasuna defendatu behar da, beti ere, bortxarik gabe adieraz ditzaten beren asmo pertsonal eta politikoak, bidezkoak guztiak ere.
- 5.- Gizarte demokratiko batean, egitasmo politiko demokratiko oro defendatu, garatu eta, hala badagokio, gauzatu behar da, baldin eta herritarren gehiengoaren babesa badauka. Beti ere, errespetatu egin behar da, baldintza berdintasunean, aukera politiko desberdinen ordezkariak askea eta defentsa eraginkorra. Xede horrekin, Zuzenbide Estatu bateko arau demokratikoen eta politikak dituzten mekanismoak baino ez dira erabiliko borondate kolektiboa eratzeko.
- 6.- Aniztasun politikoa eraginkortasunez eta modu kontsekuentean errespetatzea, beraz, nahitaezkoa da, gure herrietan guztiok elkarrekin biziko bagara.

Konpromisoak

Printzipio horietan, oinarrituta, alderdi politikoek eta euskal alkate eta zinegotziek gure borondatea adierazten dugu:

- 1.- **Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa** onartzea. Helburu hori lortzeko behar diren neurri ekonomiko, arau-emaile, politiko eta sozialak jasoko ditu akordioak, eta, era berean, euskal gizarte eta aktiboan inplikaturiko du akordioaren garapenean.

Udal akordio horretan ondoko konpromisoak jasoko ditugu:

- Bizitzarako eskubidea defendatzeak duela lehentasuna berrestea, horixe baita bizikidetzarako oinarritzko printzipioa.
- Gizon-emakume guztien oinarritzko eskubideak errespetatu eta errespetaraztea.
- Zuzenbide Estatu -demokraziaren oinarritzko elementua den aldetik- eta beronen erakundeak defendatzea, horiek baitira herritarren borondate demokratikoaren isla.
- Egitasmo politikoak lortzeko, indarkeria bortxa gisa erabiltzeari beren beregi uko egiten dieten egitasmo politiko guztien bidezkoasuna eta legezkoasun demokratikoa defendatzea.



ATAUNgo UDALA

- ETari exijitzea errespeta dezan euskal gizartearen borondatea eta behin betiko utz dezan indarkeria.
 - Elkartasun aktibo eta aintzatespen etiko, sozial eta materialeko ekimenak garatu, indarkeria, intolerantzia eta giza eskubideen nahiz eskubide zibiko eta politikoen haustea jasan dutenen eta jasaten dutenen alde. Are gehiago, baita judizialki ere, Korporazio gisa, norbaitek mota honetako edozein estortsio jasaten duenean.
 - Herritar guztien eskubideak zaindu eta defendatzea eraso, urratu edo baldintzatu nahi dituztenen aurrean, eraturako udal gobernuaren ezaugarriak edo udalerrri bakoitzean dauden indarrak gorabehera.
 - Herritarren parte-hartze eta ordezkarietza politikorako eskubideak askatasunez erabiltzea udal esparruan, beti ere, aukera politiko bidezko eta demokratiko guztien aniztasuna errespetatuz eta, elkartasunez, beraien lan publikoa bermatuz, izan daitezkeen legez kanpoko ekintza, mehatxu, larderia edo erasoen aurrean.
- 2.- Toki esparruan demokrazia eta askatasunaren aldeko printzipioak eta aniztasunaren eta giza eskubideen errespeturako printzipioak zabalitzea, politika eta gizartearen inplikazio ahalik eta handiena bilatuz ezarpen praktikoa eraginkortasunez gauzatzeko, udalez udal eta herriz herri.

Ondorio horietarako, **udalek demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko toki foroa** sustatuko dute. Foroa zabalik egongo da herritarrek eta elkarteek parte har dezaten, eta aldizka bilduko da herri bakoitzeko sentsibiltate sozial eta politiko desberdinen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea sustatzeko, sentsibiltate horiek honako adierazpen zibikoan azaldutako printzipio eta konpromisoekin eraginkortasunez konprometituak direlarik.

- Ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbidetuko duten ekimenak garatuko ditu;
 - Demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du.
- 3.- Edozein akordio politiko lortzekotan, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoan azaltzen diren printzipio eta



ATAUNgo UDALA

konpromisoak modu eraginkorrez onartu eta defendatzea, ezinbesteko oinarri politikoa delakoan gaude.”

Eudel-en mozioan, ideien aniztasuna eta pertsona guztien oinarrizko eskubideak errespetatzea aldarrikatzen dela esan du batzarburuak.

Aurreko puntuan, Espainiako Gobernuak proposatutako neurrien kontra azaldu diren bezala, ETak PP eta PSOEko zinegotzien aurka burutzen dituen ekintzen kontra eta askatasunaren eta aniztasun politikoaren alde agertzea ere behar-beharrezkoa dela uste dute.

Aitor Aldasororen iritziz, proposamena nola dagoen idatzita ikusita, Batasuna baztertzeko ahalegin berri baten aurrean gaude. Hori horrela, testu adostu bat ateratzeko Batasuna prest agertu zen arren, ahalegin handiagoa egin zen PSOE gerturatzen.

Ez dute sartu nahi izan kontrako mozioen dinamikan. Bakar bakarrik adierazi nahi dute bidea adostasuna lortzea dela, ez Ajuriaeneko Hitzarmenaren antzeko planteamenduetara itzultzea.

Batzarburuak esan du berak ez daukala Batasuna baztertzeko asmorik. PP eta PSOEko zinegotziek ere eskubide berberak dituztela baino ez dute azpimarratu nahi. Hori da Eudel-en mozioaren funtsa.

Dena den, gatazkari irtenbidea emateko behar-beharrezkoa da herria ordezkatzeko duten indar eta erakunde guztien artean hitz egin eta ados jartzea.

Eta gai honen gainean nahikoa eztabaidatu delakoan, Udalbatzak mozioa idatzita dagoen bezalaxe onartzea erabaki du. Aitor Auzmendi, Jexux Goikoetxea, Jaione Munduate, Iñaki Eskisabel eta Santi Etxeberrriak aldeko botua eman dute, eta Aitor Aldasoro, Oihana Munduate, Lourdes Etxeberria eta Joxe Mari Barandiaranek aurkakoa.

XVI.- ALKATETZAK DEKRETU BIDEZ EMANDAKO OBRA-BAIMENAK.-

Jarraian, Alkatetzaren Dekretu bidez emandako honako lan-baimen hauen berri eman du Batzarburuak:

- Aitor Aldasoro Sukia (Imaz-Berri etxea): Sarrerako eta baje-rako zoruak berdindu, paretak berritu eta instalazio elektrikoa berritu (kableatua eta argi-kaxa berria).
- Genoveva Aierbe Arratibel (Bordatxo etxea): Etxea zuritu.



ATAUNgo UDALA

- Ubarrietako Jabekideak: Ubarrieta etxeko teilatua berritu.
 - Ainhoa Esteban Lizarazu (Arrizabalaga baserria): Lehenagoko ikuilu zaharrear saloi bat egokitu.
 - Arantzazu Agirre Zeberio (Altzanipe 1, 1. A): Altzanipe etxean "Erosle" izandako lokalean komuneko tuberiak tokiz aldatu, eta sukaldea eta mostradore bat jarri.
 - Jose M^a Arrondo Mujika (Lizardi etxea, 2. B): Sukaldea berritu.
 - Laskain Zelai etxeko jabekideak: Laskain Zelai etxeetan buzoiak jarri.
- Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

AKTA BUKAERA.- Eta aztergai gehiago ez dagoenez, Alkatetzak, 21:25etan, bilkura bukatutzat eman eta honako akta hau jaso da. Nik, idazkariak, fede ematen dut.